



## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko urriaren 15etik 19rako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



#### Datuaren analisisia


Alemaniako inbertsiogileen konfiantzak okerrera egin du urrian. Hain zuzen ere, konfiantzaren dize ekonomikoa -24,7 puntu jaitsi da iraileko 10,6 puntuetatik, ZEW Ikerketa Ekonomikoko antzaren txostenaren arabera. Datua aurreikuspenen oso azpitik dago, analistek -12,0 puntutakoa atea espero baitzuten. Bestalde, ekonomiaren gaur egungo baldintzei buruzko indizeak ere irrekusitakoa baino gehiago egin du behera. Izan ere, indizeak 70,1 puntu lortu baititu urrian, esperotako 74,4 puntuen eta aurreko hileko 76,0 puntuen aldean.

#### Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko oeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomikoa” islatzeko balio du. lero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten tuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz ldetzen zaie adituei.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: XEHEKAKO SALMENTAK



### Datuaren analisia


ailan, **xehekako salmentak** ez ziren ia igo, bi urtetan izandako jateke eta tabernen kontsumoaren beherakadarik handienak ibilgailuen salmenta kopuruaren gorakada arindu zuelako. Xehakako salmentak % 0,1 bakarrik egin zuen gora, espero zen % 0,6ko igoeraren aldean.

### Adierazlearen azalpena

Xehakako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa hartzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta akusten ditu. Hilero enpresei xehekako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren antzinetatik lortzen dira datuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: XEHKAKO SALMENTAK



#### Datuaren analisia


Urreko hilarekin alderatuz, **xehekako salmentak** % 0,8 jaitsi ziren irailean; besteak beste, ikaduraren gastuak % 1,5 egin zuelako atzera. Beherakada hori alde batera utzita, erakundeak errepresetatu zuen irailera arteko hiru hilabeteetan salmentek % 1,2 egin zutelara gora, erloju eta bitxiaren salmenten igoerak lagunduta, baita online saltokienak ere.

#### Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa errepresentatzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta errepresentatzen ditu. Hilero enpresei xehekako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren antzuntetik lortzen dira datuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: BPGd



### Datuaren analisisa


Arteko hirugarren hiruheretakoan, Txinak moteldu egin zuen bere hazkunde-erritmoa, eta barne produktu gordinak (**BPGd**) urte arteko % 6,5 egin zuen gora; Txinako gobernuak bere ekonomiaren eldialdiaz eta beheranzko presio handiagoez ohartarazteko erabili duen datua. Hazkundera, hulena 2009ko lehen hiruheretotik, moteldu egin zen aurtengo bigarren hiruheretako % 6,7ari agokionez, analistek espero zuten moduan. Hala ere, epe horretako dezelerazioa zertxobait itikiagoa izatea espero zuten, % 6,6koa.

### Adierazlearen azalpena

Estadistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten oizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak oizpena dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dira, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: KPI



#### Datuaren analisisia

**azpiiko KPIak** (Japoniaren kasuan, elikagaien prezioak kanpo uzten dituenak, haien hegazkortasun handia dela-eta) urte arteko % 1,0 egin zuen gora, eta, beraz, hogeita batgarren hilabetez jarraian zegoen, energiaren kostuaren garestitzearen ondorioz batik batik. Nolanahi ere, nahiz eta erazleak hazkunde bat erakusten duen abuztuko urte arteko % 0,9ko handitzearen aldean, aindik urrun dago Japoniako Bankuak ezarritako % 2ko helburutik. Aurreko hilaren ondoren, azioak % 0,1 igo ziren.

#### Adierazlearen azalpena

**azpiiko inflazioa** kontsumoko prezioen indizeari (KPIari) etengabe aldatzen diren osagaiak (gasolina, itak, etab.) kendu ondoren lortzen dugun inflazioa da. Epe ertainean prezioen joera orokorra agutzera da inflazioa modu honetara neurtzearen arrazoia.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
10/22	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	0.22
10/23	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.3
10/23	Espainia	Balantza komertziala	--
10/23	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	24
10/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-3.2
10/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
10/24	Frantzia	Enpresen konfiantza	106
10/24	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	52.4
10/24	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	54.7
10/24	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	53.4
10/24	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.5
10/24	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	53.0
10/24	Eurogunea	M3 YoY diru-eskaintza	% 3.5
10/24	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	54.5
10/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	53.9
10/24	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	55.5
10/24	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	54.0
10/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
10/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	-% 0,6
10/24	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
10/25	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.5
10/25	Espainia	Langabezia-tasa	% 14.85
10/25	Alemania	IFO enpresen egoera	103.2
10/25	Alemania	IFO aukerak	100.4
10/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	106.0
10/25	Eurogunea	EBZren birfinantzaketa mota nagusia	% 0.000
10/25	Eurogunea	ECB gordailuen organismoen tasa	-% 0.400
10/25	Estatu Batuak	Ondasun aurreratuen balantza komertziala	-\$75.1b
10/25	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0,5
10/25	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
10/25	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 1.5
10/25	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	213k
10/25	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0.0
10/25	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	14
10/26	Japonia	YoY Tokioko KPI	% 1,5
10/26	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	94
10/26	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 3.4
10/26	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	99.0

## JRTSA:

Induko burtsa nagusiek itxiera mistoak izan zituzten.ainera, Brexitaren inguruko akordio bat negoziatzeko intasunak, EBk Italiako aurrekontuak atzera botatzeko kerak eta FEDen akten argitalpenak erakarri zuten ertsioegileen arreta. Izan ere, Erreserba Federalaren azken eraren aktek interes-tasak igotzen jarraitzeko adostasun korra erakutsi zuten, tasa neutrala maila batean gaintuz. liak, bestalde, Bruselan aurkeztu zituen bere rrekontuak, eta EBk ohartarazi zion bere defizitaren deak Batzordearen arauak urratzen dituela, aurrekontuak zera botatzeko aukerak handituz. Brexitari dagokionez, tatuburuen bilerak agerian utzi zituen akordio bat egiteko iltasunak. Horiek horrela, Europar Batasuna eta May prest ertu ziren Brexitaren trantsizio-epaia luzatzeko. Horrez in, merkatuei eragiten dien zalantza guztiei Espainiako izitegi Gorenaren epaia gehitu zitzairen, ekintza juridiko kumentatuen zerga bankuek ordaindu behar dutela azten duena, eta ez bezeroek. Horren berri jakin bezain ster, Gorenak epaia eteteko erabakia hartu zuen, gaia kon aztertzeko helburuarekin. Azkenik, AEBen eta Saudi abiaren arteko tentsioak harrotu egin ziren, Saudi Arabiako baxadan gertatutako *Washington Post* egunkariko zetariaren ustezko hilketaren aurrean.

## ERRENTA FINKOAK:

Italiako kurbak hegazkortasun handia erakutsi zuen beste behin. Bada, herrialdearen inguruko zalantzek eragina izan zuten hamar urterako bonuan; % 3,68raino handitu zuen errentagarritasuna (maximoa 2014ko otsailetik). Bestalde, EBk Espainiari ere aurrekontuei buruzko azalpenak eskatuko dizkiola jakin zenean, igo egin ziren hamar urterako bonuen salmentak, eta errentagarritasuna % 1,74raino handitu zen, 6 op hazi ondoren. Core zorraren kasuan, arriskuarekiko ezinikusiaren handitzeak eragina izan zuen zor alemaniarrean, eta, ondorioz, hamar urterako tasak 4 op egin zituen atzera. AEBetan, Fed-en aktek gorantz bultzatu zituen hamar urterako T-Note letren salmentak; 3 op igo ziren, % 3,19raino. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi. Moody's agentziak Italiaren kalifikazioa Baa2tik Baa3ra jaitsi zuen, aurreikuspen egonkorrekin.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Dolarra indartu egin zen; alde batetik, Fed-ek bere azken bileraren aktetan interes-tasak igotzen jarraitzeko beharra azpimarratu zuelako, eta, bestetik, EBk Italiaren aurrekontu-proposamena gogor kritikatu zuelako. Liberak, aldiz, balioa galdu zuen euroaren aurrean, Brexitak eragindako ziurgabetasuna dela-eta. Lehengaietan, petrolioaren prezioak % 0,93 egin zuen behera. AEBetan petrolio gordinaren inbentarioen datu espero baino handiagoak eragina izan zuen kotizazioan. Urriaren balioa, bestetik, % 0,73 igo zen, 1.226,90 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald.% 2018
MSCI WORLD (Local)	1.576,00	0,12	-0,64
IBEX 35	8.892,10	-0,11	-11,47
DJ EURO STOXX 50	3.210,82	0,51	-8,37
DJ STOXX 50	2.940,60	1,39	-7,47
FTSE	7.049,80	0,77	-8,30
S&P 500	2.767,78	0,02	3,52
Dow Jones	25.444,34	0,41	2,93
NASDAQ	7.449,03	-0,64	7,90
NIKKEI 225	22.532,08	-0,72	-1,02
MSCI GORAKORRAK (Lo)	53.926,11	-1,03	-11,42
MEXBOL	47.437,45	-0,01	-3,88
BOVESPA	84.219,74	1,57	10,23
SHANGHAI	2.671,08	-2,16	-22,88
Errusia Rts Mosku	1.126,97	-1,26	-2,38

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,58	-0,02	0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,06	0,07	0,29
AEB 2 URTE	2,90	0,05	1,02
ALEMANIA 10 URTE	0,46	-0,04	0,03
ESPAINIA 10 URTE	1,74	0,06	0,17
AEB 10 URTE	3,19	0,03	0,79
ALEMANIA 30 URTE	1,07	-0,05	-0,19
ESPAINIA 30 URTE	2,84	0,05	-0,01
AEB 10 URTE	3,38	0,04	0,64
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/23	73,84	-0,25	28,92
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23	295,27	1,46	62,84

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Dolarra / Euroa	1,15	-0,37	-4,18
Yena / Euroa	129,54	0,04	-4,30
Libera / Euroa	0,88	0,30	-0,84

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Petrolio (Brent)	80,12	-0,93	19,90
Urrea	1.226,90	0,73	-5,84





Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.